# baikara

Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa
3. zkia. 2004ko ekaina



## FESTARA
## ESKOLA PUBLIKOA JAI SOINEKOZ JANTZIRIK



ACTUALIDAD
**EL 0-3 A EXAMEN**



ERREPORTAJEA
**EGUN BAT AZKARATEKO BARNETEGIAN**


Utzi hegan egiten zure irudimenari eta idatzi euskaraz idatzi ahala.
Orain, zeurea da hitza
www.conocecocacola.com
ESKERRIK ASKO PARTE HARTZEAGATIK
EUSKARAZKO IDAZLANEN lehenengo LEHIAKETA
Bazen behin
NORBEGA S.A.
Coca-Cola botilaratzaileak antolatutako ekitaldia
Argibide gehiago: Ane Epalza.
Posta Elektronikoa: aepalza@norbega.com
Telefonoa : 94 457 71 62
Coca-Cola

**baikara**
**Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa**

**ARGITARATZAILEA**
**BAIKARA FEDERAZIOA**
Baso-Txiki Kalea,
36-atzealdea
20015 Donostia
✆ 943-327208
✆ 943-274977
e-mail: baikara@ehige.org
rosa@ehige.org

**Koordinatzailea**
Rosa Izquierdo

**Erredakzioa**
Zaragueta Ikastetxea
Leka Enea Ikastetxea
Eskola Txikiak
Koldo Mitxelena Institutua

**Euskara zuzentzaileak**
Miren Arratibel eta
Aintzane Atela

**Argazkiak**
Luis Mari Unciti
Imanol Lara
Belaskoenea Ikastetxea

**Diseinua eta maketazioa**
Román Ferrero

**Inprimatzailea**
Diario Vasco

**Lege-gordailua**
ISSN 1697-9109

Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru
Aldundiaren laguntza
jaso du

# editoriala editorial

Hemen datoz udako oporrak, eta horiekin batera, Baikara aldizkariak ikasturte honetan aterako duen azken zenbakia. Ikusten duzuenez, Euskal Eskola Publikoaren Jaia da protagonista nagusia, eta ez da harritzekoa, behingoz, udaberri giro aparta izan genuelako, azken urteetan ez bezala. Eta jaiak alde batera utzi gabe, Ikasbiren jaia ere ekarriko dugu gure orrietara (aurreko maiatzaren 2an izan zen), eta Eskola Txikienak ere izango du bere tartea (ekainaren 13an ospatu zen). Era berean, Kulturartekotasunaren II. Topaketak ere aipatuko ditugu, datorren ikasturtean berriro landuko dugun egitarau interesgarriari amaiera bikaina eman baitzioten. Azkarateko barnetegia, Urgulleko natur txokoa, udako kirol jarduerak… ikasleen oporrekin bete-betean bat egin dugu zenbaki honetan, eta eduki arin eta “argitsuak” dakartzagu. Beraz… ongi ibili udan, eta laster arte!

*Llegan las vacaciones de verano y con ellas el último número de Baikara para este curso escolar. Como podéis ver la Fiesta de la Escuela Pública Vasca es la gran protagonista, y no es para menos porque por fin pudimos disfrutar, además, de un tiempo primaveral, nada usual en las últimas ediciones. Siguiendo con el tema festivo nos acercamos también a la Fiesta de Ikasbi, que se celebró el pasado 2 de mayo, y a la de Eskola Txikiak que tomó nuestro relevo el 13 de junio, sin olvidarnos del II Encuentro Intercultural que puso punto final a un interesante programa que retomaremos el curso que viene. El barnetegi de Azkarate, las colonias de la naturaleza en Urgull, actividades deportivas veraniegas..., en este número nos hemos metido de lleno en el papel vacacional del alumnado, con unos contenidos muy ligeros y ‘soleados’. Así que... ¡pasarlo bien en verano y hasta la próxima!.*








# laburpena sumario

**3.** EDITORIAL. **4.** NATURALEZAKO ESKOLA. **6.** DONOSTIAKO HAURTXOKO ETA GAZTELEKUAK. **8.** CONVENIO EDUCACION-DONOSTIA KULTURA **9.** GUIA MUNICIPAL Y ACTIVIDADES DEPORTIVAS. **10.** II ENCUENTRO ¡¡PARTICIPA CONVIVIENDO ENTRE CULTURAS!!. **12.** TRES EXPERIENCIAS LIGADAS A LA INTERCULTURALIDAD. **13.** OPORRAK EUSKERAZ Y VACACIONES EN PAZ. **14.** VALORACION 0-3 AÑOS. **18.** SAN JOAN TRADIZIOA. **19.** EUSKARAZKO IDAZKETAKO I. COCA-COLA LEHIAKETA. **20.** ESKOLA PUBLIKOA JAI SOINEKOZ JANTZIRIK. **24.** EGUN BAT AZKARATEKO BARNETEGIAN. **26.** ESKOLA TXIKIEN FEDERAZIOA. **27.** BERRIAK. ♣






# Urgull

## Izadia eta kultura

### ekaina 21-iraila 19

Donostiako Udalak kultur ekintzen egitarau berezia antolatzen du urtero Urgull mendian, 1997. urteaz gero, donostiarrek nahiz kanpotik etorritako bisitariek mendi hori ongi ezagutzeko eta bertan gozatzeko aukera izan dezaten. Izan ere, Urgull mendia paraje ezin hobean dago, itsasoaren eta hiriaren artean, eta altxor bikaina da, historiari, kulturari eta paisaiari dagokienez.

Urte hauetan bisitari askok parte hartu izan du Urgull mendian udan egiten diren ekintza horietan; gero eta jende gehiago hurbiltzen da, eta horrek erakusten du ekintzak zein arrakastatsu diren. 2001. urtean 27.906 parte-hartzaile izan ziren, eta iazko ekitaldian, berriz, 35.099.

**EKINTZEN DESKRIBAPENA:**

**NATUR TXOKOA:**

Izadiaren Interpretazio Gunea, Gobernadorearen baterian.

Natur Txokoak orain arteko ekitaldietan eskaini dituen zerbitzuen helburu nagusia izan da mendira etortzen diren guztiei Urgull mendiko ingurune natural apartaz gozatzeko aukera ematea. Nagusiki bisitari gazteei zuzendutako zerbitzua da, baina adin eta jatorri guztietako jendea etorri ohi da Natur Txokoaren instalazioetara.





Txoko horretan, izadia ezagutzen eta maitatzen ikasten dute haurrek. Neska-mutil gehienek ezezagun duten mundu berezi batean murgiltzeko aukera dute eskaintza horri esker. Baratzea eta etxalde txikia dira gune erakargarrienak, baina mahaietan eta apaletan ere natur zientzien gaineko irakaspen bikainak aurki daitezke. Bestalde, lantegiak antolatzen dituzte, intsektuak, hegaztiak eta bertako flora aztertzeko. Beste era bateko ekintzetarako tokia ere badago; adibidez, Donostiako parkeei buruzko erakusketarako eta basoari buruzko erakusketarako tokia.















**ERAKUSKETA: Motako gazteluan**

Erakusketaren osagai grafikoek eta ikus-entzunezkoek gune naturalekin zerikusia duten bi proiektu hauen oinarrizko ezaugarriak deskribatzen dituzte:

1. Ametzagainako partea: Lau Haizetako parke naturalaren barruan, birika berde eta aisiarako gune izateko aukeratua.

2. Amaiur parkea: Bakerako eta indarkeriaren biktimen oroitzapenerako parkea.

Donostiako Udalarentzat garrantzi handikoa da Urgullek erakustea bi proposamen horiek, Urgull bera gune natural historiko handia delako, eta bi proiektu horiek bereziak eta izaera berezikoak direlako, hiri humanoago eta hurbilago bat eraikitzen lagunduko dutelako.

**LIBURUTEGIA: Damen baterian**

Bereziki haurrei eskainitako liburutegi zerbitzua da; haurrentzako liburu bilduma zabala eta atsegina eta ordenagailuak, CD-Romekin, daude gune horretan.

Gainera, astean bi ekintza berezi egiten dira, aldez aurretik iragarritako ordutegietan: "Ipuinaren ordua" eta "Ordu girotua".

Egitarau honen foiletoa honako leku hauetan lor daiteke:

- Turismo Bulegoa
- Donostia Kultura
- Mari Gazte Informazio Bulegoa

## DATAK ETA ORDUTEGIAK

**2004ko ekainaren 21etik**
**2004ko irailaren 19ra.**
**Astelehenetik igandera, biak barne.**
**Ordutegia:**
**Goizez: 11:00-13:30**
**Arratsaldez: 17:00-20:00**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Gazteria, Hezkuntza, Lankidetza eta Giza Eskubideen Zuzendaritza
Dirección de Juventud, Educación, Cooperación y Derechos Humanos
DONOSTIA KULTURA
Cementos Rezola
Italcementi Group

**DISFRUTANDO EN LA NATURALEZA**

**Desde el año 1997 el Ayuntamiento de Donostia - San Sebastián viene desarrollando un programa de actividades culturales en el Monte Urgull, con el objetivo de que éste sea cada vez más conocido y disfrutado por los donostiarras y por la gente que acude a la capital guipuzcoana. Durante estos años son muchos los que se han acercado a las diversas actividades estivales celebradas en Urgull; año tras año esta cantidad ha ido en aumento y, mientras que en el 2001 fueron 27.906 las personas asistentes, en la pasada edición el número ascendió a 35.099.**

**Entre estas actividades cabe destacar el Natur Txoko, un Centro de Interpretación de la Naturaleza, en la Batería del Gobernador. Es un rincón en el que los niños y niñas aprenden a conocer y a amar la naturaleza. Una huerta y una pequeña granja son el principal reclamo, aunque encima de las mesas y en las vitrinas se encuentran con toda una lección de ciencias naturales. También tenemos una exposición en el Castillo de la Mota y una Biblioteca en la Batería de las Damas, dirigida especialmente al público infantil con una amplia y divertida colección de libros y ordenadores con CD-Rooms infantiles. Además, semanalmente, determinados días y a unas horas anunciadas previamente, dos actividades concretas: "La hora del cuento" y "La hora animada".**

# HAURTXOKOEN ETA GAZTELEKUEN UDAKO EGITARAUAK



## EKAINA

### GAZTELEKUAK

**Kontadores**
**(Astelehenetik larunbatera 16:30-20:30)**
22 Pelikula (Jatorrizko bertsioa). 18:00
24 Clown tailerra. 19:00
25 Zaragozako Jolas-parkera irteera
29 Pelikula (Jatorrizko bertsioa). 18:00
Topagunea egun guztietan

**Martutene**
**(Astelehenetik larunbatera 16:30-20:30)**
23 Pelikula. 18:30
24 Sukaldaritza tailerra: irabiakiak. 18:30
25 Imitazioziko bitxien tailerra. 16:30
Zaragozako Jolas-parkera irteera
28 Zinea kalean. 22:30
30 Pelikula. 18:30
Topagunea egun guztietan

**Amara**
**Ekainaren 21etik uztailaren 23 arte ordutegi aldaketa (Astelenetik ostiralera 17:00-20:30)**

**Egia**
**(Asteartetik ostegunera 17:00-20:30, ostirala eta larunbata 17:00-21:00)**

**ANIZTASUNA SEXUALITATEAN**

22 PLAY STATION 2
24 Aldizkari berriak
**26 GAZTELEKUKO I. URTEURRENA**
29 ARKATXONera egun guztiko irteera.
Topagunea egun guztietan

* Ekainak 15etik 30arte urtean zehar egindako argazki guztien erakusketa; Gaztelekuko urteurrena ospakizuna dela eta.

**Gros**
**(Astelehenetik ostegunera 17:00-20:30, ostirala eta larunbata 17:00-21:00)**
22 Xake txapelketa + Play Station
23 San Juan Festa
25 Fimo tailerra
26 Xake txapelketa (finala) + Play Station
29 Fimo tailerra + play station
Topagunea egun guztietan

**Antiguako Gazte Dinamizazio Zerbitzua**
19 Topalekua + Dantzaldia (San Juan). 20:00 - 18:30

### HAURTXOKOAK

**Amara**
**(Astelenetik ostiralera 17:00-20:30 Uztailaren 23arte irekia)**
Donostiako Udaleko Gazteria, Hezkuntza, Lankidetza eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak eta Donostia Kulturak bultzatzen duten zerbitzu berri bat ireki da Ernest Lluch Kultur Etxean: Amarako Haurtxokoa, hain zuzen ere.
Ekaina osoan eta uztailaren 23 arte egongo da martxan eta hurrengo ezaugarriak izango ditu.

**Ezaugarriak:**
- Joko librea eta gidatua izango dira heziketa gune honen ekintza nagusiak.
- Adinak: **6 eta 12 urte bitarteko haurrak**.
- Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:30etara.
- Txandak:

| Adina | Sarrera ordua | Irteera ordua |
|---|---|---|
| **6-9 urte bitartekoak** (1998tik 1995era bitartean jaiotakoak) | 17:00 | 18:30 |
| **9-12 urte bitartekoak** (1995etik 1992ra bitartean jaiotakoak) | 18:30 | 20:00etatik aurrera |

14 "Haurtxokorako pegatinak" tailerra
15 Marrazketa librea. Gaia "Oporrak Donostian"
16 Haurtxokoko joko berriak ezagutuko ditugu?
17 Koreografia
18 Jokorik gabe jolastuko dugu?
21 "Haurtxokorako pegatinak" tailerra
22 Marrazketa librea. Gaia "Oporrak Donostian"
23 Haurtxokoko joko berriak ezagutuko ditugu?
24 Koreografia
25 Jokorik gabe jolastuko dugu?
28 "Haurtxokorako pegatinak" tailerra
29 Marrazketa librea. Gaia "Oporrak Donostian"
30 Haurtxokoko joko berriak ezagutuko ditugu?

**Gros**
**(astelehenetik ostiralera 16:30-20:00, larunbatetan 10:00-13:00)**
1 Papiroflexia tailerra (9-12 urtekoentzat)
3 Papiroflexia tailerra (9-12 urtekoentzat)
8 Birziklapen tailerra (6-8 urtekoentzat)
10 Birziklapen tailerra (6-8 urtekoentzat)
12 Ginkana (9-12 urtekoentzat)
19 Pailazoen eguna (6-8 urtekoentzat)
22 Udaberriari ongietorria (6-8 urtekoentzat)
24 Udaberriari ongietorria (6-8 urtekoentzat)

Jolas librea egun guztietan





## UZTAILA

## GAZTELEKUAK

### Kontadores
**Uztaila 1-17 (astelehenetik larunbatera 16:30-20:30)**
**Uztaila 19-30 (astelehenetik ostiralera (10:00-14:00)**

1 Taewkondo tailerra
6 Karaokea
7 Break Dance tailerra
8 Break Dance tailerra
9 Break Dance tailerra
13 Karaokea
17 Arkatxon-era irteera
Topagunea egun guztietan

### Martutene
**Uztaila 1-17 (astelehenetik larunbatera 16:30-20:30)**
**Uztaila 19-30 (astelehenetik ostiralera (10:00-14:00)**

Programaketa gazteekin eta nerabeekin zehaztuko da, beraien interesen arabera.
17 Arkatxon-era irteera
Topagunea egun guztietan

### Amara
**Ekainaren 21etik uztailaren 23 arte ordutegi aldaketa (Astelenetik ostiralera 17:00-20:30)**

6 Break tailerra 18:00
9 Dardo lehiaketa 17:30
13 Break tailerra 18:00
20 Break tailerra 18:00
22 Udako Gaztelekuko jaialdia 18:00-22:00
Break erakustaldiak eta tailerrak
Kontzertua: Clan 12, Imperio Sabio

### Egia
**(asteartetik larunbatera 10:00-13:00)**

## AISIALDIA

1 Aldizkari berriak
2 Zineforuma
3 Eskalatzera rteera
6 DJ tailerra
7 Play Station 2: Jolas berria + dantza tailerra
8 DJ tailerra + aldizkari berriak
9 Dantza tailerra
10 SANTA KLARA irlara irteera (Egun guztiko irteera)
13 DJ tailerra
14 Play Station 2 + dantza tailerra
15 DJ tailerra + aldizkari berriak
16 Dantza tailerra
17 Piraguetan ibiltzera
20 T'chang jolas berriaren aurkezpena
21 Play Station 2 + zehaztu gabeko tailerra
22 Aldizkari berriak
23 Zehaztu gabeko tailerra
24 Zaldiz ibiltzera
27 Musika berria
28 Play Station 2 + zehaztu gabeko tailerra
29 Aldizkari berriak
30 Zehaztu gabeko tailerra
Topagunea egun guztietan

### Gros
**(Astelehenetik ostegunera 17:00-20:30, ostirala eta larunbata 17:00-21:00)**
5 Abalorio tailerra
7 Play Station txapelketa
9 Abalorio tailerra
12 Abalorio tailerra
16 Abalorio tailerra
19 Fimo tailerra
21 Futbolin txapelketa
23 Fimo tailerra
26 Agur jaiaren prestaketa
28 Agur jaiaren prestaketa
30 Agur Jaia
Topagunea egun guztietan.
Irteerak larunbatetan.

## HAURTXOKOAK

### Amara
**(Astelenetik ostiralera 17:00-20:30) Uztailaren 23arte irekia**

1 Koreografia
2 Jokorik gabe jolastuko dugu?
5 Imitaziozko bitxien tailerra
6 Marrazketa librea. Gaia "Oporrak nonbaiten"
7 Haurtxokoko joko berriak ezagutuko ditugu?
8 Koreografia
9 Jokorik gabe jolastuko dugu?
12 Imitaziozko bitxien tailerra
13 Marrazketa librea. Gaia "Oporrak nonbaiten"
14 Haurtxokoko joko berriak ezagutuko ditugu?
15 Koreografia
16 Jokorik gabe jolastuko dugu?
19 Imitaziozko bitxien tailerra
20 Marrazketa librea. Gaia "Oporrak nonbaiten"
21 Haurtxokoko joko berriak ezagutuko ditugu?
22 Koreografia
23 Jokorik gabe jolastuko dugu?

### Gros
**(Astelehenetik ostiralera 16:30-20:00, larunbatetan 10:00-13:00)**

1 Udarari ongietorria (6-8 urtekoentzat)
31 Agur Jaia

Haur saharauiekin ekintza ezberdinak.
Hainbat tailer (gomaespuma tailerra, kaxak, xagutxoak, argizari tailerra, etab…).

Jolas librea egun guztietan.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Gazteria, Hezkuntza, Lankidetza eta Giza Eskubideen Zuzendaritza
Dirección de Juventud, Educación, Cooperación y Derechos Humanos

DONOSTIA KULTURA




# Bibliotecas-Mediatecas, nuevos recursos educativos

## Altza SJC acaba de inaugurar oficialmente "125 metros cuadrados de mediateca escolar"

La reforma educativa propone una participación del alumnado en la construcción de sus aprendizajes y exige, tanto a los alumnos/as como al profesorado, trabajar la información procedente de diversas fuentes. Esto implica la necesidad de desarrollar una biblioteca-mediateca escolar al servicio del cambio educativo que asegure el acceso a una amplia gama de recursos y servicios, y dote al estudiante de las capacidades básicas para acceder a la tecnología de la información, el mundo del ocio y la educación permanente.

El manifiesto de la UNESCO para las bibliotecas-mediatecas escolares considera a éstas, no como un servicio más que la escuela ofrece a sus integrantes, sino como un elemento básico e indispensable sin el cual la escuela no podrá llevar a término su función educativa.

Por este motivo, el Area de Juventud, Educación, Cooperación y Derechos Humanos del Ayuntamiento de Donostia firmó un acuerdo de colaboración con Donostia Kultura para el desarrollo y mejora de las Mediatecas escolares por un período de tres años.

**Mediateca en Altza**

El pasado día 26 de mayo se inauguró oficialmente la mediateca de Altza SJC con un acto al que acudieron, entre otros, el Alcalde Odón Elorza, el Delegado de Educación de Gipuzkoa, Juanjosé Aguirrezabala y la Concejala de Juventud, Educación y Derechos Humanos, Arritxu Marañón.

Este nuevo espacio obedece a esa decidida apuesta por parte del Ayuntamiento de Donosti-San Sebastián por impulsar diferentes proyectos que permitan reconocer el papel activo de Donostia como un agente educativo.



**GUZTION ESKU-ESKURA**

**Donostiako Udalak, Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkartean (AICE) sartu zenetik, ahalegin berezia egin du hezkuntza hiriaren garapenaren elementu estrategikoa izan dadin, eta arlo horretako esperientziak biltzen eta eskura dituen baliabideei ahalik eta onura handiena ateratzen saiatu da. Horretarako, egitarau jakin batzuk antolatzen ditu, herritarren formazioaren eta hezkuntzaren hainbat arlori begira. "Donostia Hiri Hezitzailea" ekimenaren aldeko apustu garbia egin du, eta hiriaren eginkizun aktiboa ezagutzeko aukera emango duten egitasmoak sustatu nahi ditu.**

Donostia Kultura

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Gazteria, Hezkuntza, Lankidetza eta Giza Eskubideen Zuzendaritza
Dirección de Juventud, Educación, Cooperación y Derechos Humanos

# HEZKUNTZAKO EGITASMOEN UDAL GIDA

Oraingo honetan, Hezkuntzako Egitasmoen Udal Gidaren bosgarren edizioa eta horri dagokion web orrialdea, www.donostia.org/hezkuntzagida, aurkeztu nahi dizkizuegu. Gida horretan, Donostiako Udalak eta beste hainbat elkarte eta erakundek diseinatutako proiektuak biltzen dira, hainbat jatorri, asmo eta erantzukizun dituzten proiektuak hain zuzen ere. Programak ordenatzea eta eskura dauden eskaintzetara jotzeko bidea erreaztea da gidaren asmoa, baina baita gure hirian hezkuntzaren kalitatea hobetzea ere.

"Donostia Hiri Hezitzailea" proiektuari egindako lehenengo ekarpenetakoa izan da Hezkuntzako Egitasmoen Udal Gidaren bosgarren edizioa. Bertan, era ordenatuan agertzen dira Donostiako Udaleko hainbat sailetan eta beste hainbat elkarte eta erakundetan egiten ari diren ekimenak. 97 hezkuntza jarduera dira, guztira, hezkuntzako hainbat mailari begira antolatuak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigarrezko Bigarren Hezkuntza, Hezkuntza Berezia, Batxilergoak, Formazio Zikloak, Lanbide Heziketako Zentroak, Tailer Eskolak, eta irakasleentzako eta gurasoentzako prestakuntza.




Gidan aurkezten diren hezkuntza jarduerak 7 arlotan banatu dituzte:

- Hezkuntza eta Kultura
- Hezkuntza eta Ingurunearen Ezagutza
- Ingurumen eta Kontsumo Hezkuntza
- Errepideko Hezkuntza
- Osasunerako Hezkuntza
- Hezkuntza eta Kirolak
- Lankidetzarako eta Tolerantziarako Hezkuntza

# UDA 2004



## Campaña de actividades deportivas

El Patronato Municipal de Deportes de Donostia propone para este verano la campaña de actividades deportivas "UDA 2004". Con esta campaña se pretende ampliar el tiempo dedicado al deporte y crear nuevos espacios que faciliten la práctica deportiva. Para ello, se oferta una amplia gama de actividades deportivas relacionadas con el verano, así como la posibilidad de realizarlas en distintas zonas de la ciudad y en un extenso abanico de horarios.

Para conseguir estos objetivos se han organizado un total de 41 actividades deportivas diferentes con capacidad para 27.065 plazas. El conjunto de las plazas se divide en categorías, con el objeto de adecuar la didáctica de los cursos a las diferentes edades, estas categorías son: actividades dirigidas a los escolares: se destinan 17.657 plazas; actividades dirigidas a los jóvenes: se ofrecen 5.299 plazas y actividades dirigidas a los adultos: se reservan 4.109 plazas.

Estos cursillos se imparten por toda la ciudad y la convierten en un gran espacio deportivo. Habrá piscina (natación, natación sincronizada, salvamento acuático y water-polo), frontón (pelota, cesta punta), pista (tenis, pádel), sala (tiro con arco, esgrima, euskal esgrima, ajedrez, tenis de mesa), playa (voley-playa, rugby-playa), mar (piragüismo, remo, vela, surf, crucero, bodyboard, actividades subacuáticas, escafandrismo, río (pesca), monte (bici de montaña, parapente, deporte y medioambiente), pista de hielo (patinaje sobre hielo, patinaje artístico, y hockey sobre hielo), equipamientos singulares (hípica, béisbol, escalada, trialsín, patinaje).

En cuanto a las inscripciones, éstas se podrán formalizar a partir del 1 de junio en las sedes de los clubes que organizan actividades. Los folletos podrán recogerse en los polideportivos y en las dependencias municipales y la misma información que se publica en los folletos podrá consultarse en la siguiente dirección de internet: www.donostiakirola.org

# II. ENCUENTRO: "¡¡Participa conviviendo entre culturas!!"



El 29 de Mayo se celebró en Donostia, en la Facultad de Filosofía y Ciencias de la Educación, la segunda parte del Encuentro" ¡¡Participa conviviendo entre culturas!!".

Una vez finalizadas las Jornadas de Sensibilización Intercultural organizadas por BAIKARA en las distintas zonas de Gipuzkoa, y previo paso a la Formación Intercultural prevista para el próximo curso, se vio como algo imprescindible el celebrar un Encuentro entre las diferentes zonas.

Dichas Jornadas, celebradas durante el curso 2003-2004, han sido protagonizadas por muy diversos/as participantes procedentes de diferentes centros escolares de Gipuzkoa, además de miembros de asociaciones que trabajan por la interculturalidad desde ámbitos diferentes del territorio guipuzcoano. Tienen un componente predominantemente vivencial, además de estar basadas en el juego como instrumento para la reflexión de la realidad multicultural.

Teniendo en cuenta la metodología empleada, este II Encuentro permitió





LA EVALUACIÓN DEL PROCESO POR PARTE DE LOS/AS PARTICIPANTES HA SIDO VALORADA POR MEDIO DE LOS SIGUIENTES ADJETIVOS:

**DIVERTIDO**
**PLACENTERO**
**ADECUADO**

**ATRACTIVO**
**IMPRESCINDIBLE**
**ILÓGICO**

**BENEFICIOSO**
**SIGNIFICATIVO**
**IMPACTANTE**

**AGRADABLE**
**INNOVADOR**
**NATURAL**

**CREATIVO**
**LÓGICO**
**ÚTIL**

**SORPRENDENTE**
**ENRIQUECEDOR**
**ENTRETENIDO**

## CONCLUSIONES RELEVANTES

- Necesidad de **pertenecer** a un grupo.
- La **cooperación** es imprescindible para la resolución de conflictos.
- Comunicamos más con lo que hacemos que con lo que decimos.
- **Perversión** del lenguaje.
- Uso a través de la interiorización de un **lenguaje** que perpetúa el racismo, sexismo...
- Las **expresiones** con connotaciones negativas varían según sucesos históricos y culturales.
- Los **prejuicios** y **estereotipos** obstaculizan las relaciones humanas.
- El hábito de **etiquetar** a los/as demás dificulta el conocimiento mutuo.
- Partir de los **sentimientos** de cada uno/a facilita la convivencia, también la intercultural.

## El año que viene Baikara, repetirá la experiencia

contrastar las diferentes opiniones, vivencias y sentimientos experimentados por los/as participantes en las mismas.

En el II. Encuentro tuvimos la ocasión, y el placer una vez más, de contar con la colaboración y la presencia de Tinus Wijnakker, miembro del Colectivo Amani, el cual posibilitó profundizar en la reflexión de la realidad multicultural.

Para el próximo curso está previsto continuar con este proceso, haciendo hincapié en la Formación Intercultural dirigida especialmente a madres y padres, como agentes importantes e imprescindibles del programa.

**II. TOPAKETA: “KULTUREKIN ELKARBIZIZ PARTE HARTZEN DUZU!!”**

**Sentsibilizazio Fasea behin amaituta eta datorren ikasturtera begira planifikatutako Kulturarteko Formakuntza burutu aurretik, ezinbestekoa ikusi genuen eskualdeen artean Topaketa bat ospatzea. Honek eskualde ezberdinetan egondako bizipenak alderatzea ahalbidetu duelarik.**
**Prozesua, Topaketa eta Jardunaldiak honen barne, partehartzaile anitzengandik protagonizatua izaten ari da. Bizipenetatik abiatuz, errealitate multikulturalaren hausnarketarako jolasa oinarrizko baliabidea izanik.**
**Azkenik, prozesuaren Sentsibilizazio Fasea giro atseginean igaro eta aldez aurretik ezarritako xedeak modu egokian asetu direla azpimarratu genezake.**

Encuentros Interculturales

# "Es un camino largo, pero el final merecerá la pena"

**Son tres testimonios que nos acercan a una realidad necesitada de profundos cambios**



Sus nombres son lo de menos aquí, a nadie le importa que se llamen Costanza, André y Jesús, aunque sí sus vivencias como ciudadanos-as de Argentina, Senegal y País Vasco. En cuanto supieron de la existencia de estos Encuentros Interculturales no dudaron en apuntarse, les interesaba el tema como parte integrante del proyecto. "En el primer Encuentro no pude estar, aunque enseguida me informé de todo y acudí a las Jornadas siguientes de Donostia con el convencimiento pleno de que aquello me interesaba, y mucho", dice Jesús Mate, padre de la ikastola Amasorrain y un fiel seguidor del programa.

> **Tenemos que acudir todos** a experiencias de este tipo, escuchar e implicarnos"

Para Jesús todo ha resultado de lo más sorpresivo, esperaba una metodología diferente llena de teoría y con poca práctica porque no podía imaginar que, un tema de estas características, pudiera llevarse con una práctica tan cercana y real. "Mi valoración es altamente positiva, en primer lugar porque la metodología me parece muy buena y, en segundo lugar, porque esa metodología nos ha ayudado mucho a la hora de trabajar y acercarnos unos a otros".

Lo de Costanza es obvio, el tema le toca muy profunda y directamente como extranjera que reside, en este momento, en el País Vasco. "Llevo años fuera de mi país y necesito este tipo de encuentros, jornadas, o como quieran llamarle. Todos tenemos que trabajar por la interculturalidad, por no sentirnos extranjeros en ninguna parte porque el tema es de todos, nos toca a todos. Respecto a la metodología, al igual que a mi compañero, me ha parecido muy buena y apropiada para la ocasión".

André es el más crítico con el tema y, aunque considera que se está dando un paso importante con este tipo de jornadas, piensa que el camino que hay que recorrer es muy largo y difícil. "Me ha sorprendido no ver a más gente aquí, gente extranjera como yo, porque todos tenemos los mismos problemas y sentimos lo mismo. Sé que es complicado, a veces, sacar tiempo para venir a estos sitios, pero hay que hacerlo porque nos tenemos que implicar más que nadie y escucharnos todos, escuchar mucho, para poder opinar".

**ELKARRI ENTZUTEKO GARAIA**
**Costanza, Andre eta Jesus ez dira herrialde berekoak, baina hiruren arteko desberdintasun bakarra fisikoa da, izan ere, Argentinak, Senegalek eta Euskal Herriak ez dute zerikusirik, geografiaren ikuspegitik. Gainerakoan, ordea, gauza asko dituzte elkarren berdin: kulturartekotasun handiko gizarteetan bizi dira hirurak, eta horren aldeko lan handia egin beharra dago herrialde horietan. Baikarak ikasturte honetarako prestatu dituen Topaketa eta Jardunaldietan parte hartu dute hirurek. Dena dela, gure lana ez da aurtengoarekin amaitu, datorren ikasturtean ere arlo hori lantzen jarraitzeko asmoa baitugu.**

# Vacaciones en paz 2004



Un año más, la ciudad de Donostia-San Sebastián dará la bienvenida a los niños y niñas saharauis que tendrán la ocasión de disfrutar de una Vacaciones en Paz lejos de los campos de refugiados de Tinduf, en el desierto argelino. Concretamente el País Vasco acogerá a 500, de los cuales 150 aproximadamente estarán en Gipuzkoa, incluyendo Donostia-San Sebastián que acogerá 40 niños. Este grupo de niños y niñas se suma a los otros que en años anteriores han tenido la oportunidad de visitar nuestra ciudad y pasar sus vacaciones entre familias donostiarras.

Los niños y niñas en edades comprendidos entre los 7 y los 12 años, aproximadamente, permanecerán los dos meses de vacaciones en familias donostiarras que colaboran en esta actividad de manera absolutamente desinteresada, estando en todo momento atendidos y asesorados por el equipo de monitores contratados a tal efecto.

Cualquier familia puede acceder a este programa sin que exista de antemano ninguna condición previa, excepto que asuman las normas de funcionamiento que se establecerán conjuntamente una vez seleccionadas las mismas.

La distribución de esta información en los centros escolares donostiarras hará llegar a las familias interesadas el programa de acogida, recogiéndose el boletín de inscripción en la oficina del Área de Juventud, Educación, Cooperación y Derechos Humanos, en el Palacio Goikoa. (943) 48 10 98.



# OPORRETAN EUSKARAZ 2004

## EUSKARAZKO TALDEETAN JOLASAK ETA IRTEERAK - UDALEKUAK - UZTAILA

**ORDUTEGIA:**
Astelehenetik ostiralera 9:30etik 13:30era izango dira jolasak eta irteerak.
Astean behin egun osoko irteera 9:30etik 17:30era.

**PARTAIDEAK:**
1993 eta 2000 bitartean, biak barne, jaiotako haurrak.

**KUOTA:**
Izen ematea: 108 €.
Prezio honetan garraioa, materiala eta asegurua barne daude.
Familia ugarietako kideei %25eko beherapena egingo zaie; horretarako, familia liburua aurkeztu beharko dute.
Gizarte-laguntza jasotzen duten familietako haurrek ez dute ordainduko ezarritako kuota. Egoera hori Donostiako Udaleko Gizarte Ongizate zuzendaritzak egindako agiri baten bidez egiaztatuko da.

**IZEN EMATEA:**
Izen emate orria, beteta, EUSKARAREN UDAL PATRONATUaren bulegora (Konstituzio plaza, 2 behea) eraman behar da, maiatzaren 24tik 28ra, biak barne, 17:00etatik 20:00etara.

Internet bidez ere egin ahal izango da izen ematea goian aipatutako egunetan, www.euskaraz.net helbidean.

***Lehen aldiz izena ematen duten haurrek*** Euskararen Udal Patronatura etorri beharko dute, goian aipatutako epean, euskarazko elkarrizketa labur bat egiteko, hizkuntza mailari dagokionez taldeak homogeneoak izan daitezen.

Onartutako haurren zerrenda 2004ko maiatzaren 31n Euskararen Udal Patronatuko iragarki taulan argitaratuko da. Zerrenda kontsultatu ahal izango da, baita ere, interneteko **www.euskaraz.net** helbide elektronikoan edo 943 483 750 telefonora deituz.



# 0-3 urte bitarteko zikloa dela-eta



## Bete dira sei hilabete ziklo horretan eskaintza publikoa egiten hasi zela, eta balorazioa erabat negatiboa da

**"Baikara" aldizkariaren lehen zenbakiko, aurreko abenduan argitaratu zen zenbakiko, artikulu batean adierazi genuenez, Hezkuntza Saila 0-3 adin tarteko haurrentzako eskaintza publikoari buruz egiten ari zen proposamenek kezka sortu ziguten, eta proposamen horiekin bat ez gentozela jakinarazi genuen. Sei hilabete igaro dira harrezkero, eta bitarte horretan "Haurreskolak" elkargoa jaio eta zenbait udalerritan finkatu da. Beraz, adin tarte horretako eskaintza publikoaren ezaugarriei buruzko iritzia emateko moduan gaude dagoeneko. Eta iritzi oso negatiboa da; izan ere, BAIKARAren ustez, Hezkuntza Saila eskaintza publikoa "Haurreskolak" elkargoaren ereduaren bitartez bideratzen tematuta dago, eta eskola publikoaren etorkizuna ilun ikusten dugu.**

**Eta ez da gure kezka soilik, eskola publikoa osatzen dugun eragile guztiona baizik (gurasoena, irakasleena, sindikatuena...). Hori dela-eta, guztion ordezkaritza biltzen duen erakundeak, Arlo Publikoaren Mahaiak, jendeari oro har eta eskola publikoaren partaide garenoi zehazki jakinarazi nahi digu larria iruditzen zaiola Hezkuntza Sailak 0-3 adin tartearen kudeaketarekiko duen jarrera. Honako hauxe duzue Irakaskuntza Publikoaren Mahaiaren agiria.**

Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren Haur Eskolak 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan arautzeko eta familiei laguntzeko asmoarekin egin zen 2002ko abenduaren 17ko Dekretua. Bestalde, Euskal Autonomi Elkarteko Legebiltzarrak 2002ko otsailaren 8ko batzarrean onartu ziren proposamenetan zehazten da: 0-3 zikloa hezitzailea dela eta Eusko Jaurlaritzak izan behar duela arduraduna; Haur Eskolen mapa egin behar duela eta bertan, udal Haur Eskolak eta sare publikoan sortuko direnak azaldu behar dutela; Erkidegoko Haur Eskolak, Hezkuntza Sailak arautu, antolatu, koordinatu eta ikuskatu behar dituela eta langileen lan baldintzak pixkanaka sare publikoko langileenekin homologatu behar direla.

Hau dena kontuan hartuta zein egoeratan aurkitzen garen gaur egun eta egoera honen aurrean sortzen zaizkigun zenbait zalantza zuekin konpartitu nahi ditugu.

Haur Eskolen mapa udalek egiten duten eskaeren arabera egiten ari da, ez dirudi aurreko planifikaziorik dagoenik. Eta hau honela da Sare Publikoko Haur Eskolak sortzeko aukera bakarra Haurreskolak Partzuergokoa delako eta udal bakoitzak erabakitzen duelako Haurreskola Partzuergoan sartu ala ez.

**Zenbat plaza sortu dira? Non sortu dira?**

2003ko iraileko datuen arabera 114 Eskola Kontzertatu edo Pribatuk zuten 0-3 zikloa emateko baimena. Eskola Kontzertatu hauek, herri ertain eta handietan edo hirietan kokatuta daude. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian begiratzen badugu, ikusten dugu egunetik egunera gero eta Eskola Kontzertatu gehiago lortzen ari direla 0-3 zikloa emateko baimena.

2004ko maiatzeko Haurreskolako web orriko datuen arabera, 33 Haurreskola sortu dira eta horietatik gehienak, ia denak, herri txikietan, Eskola Kontzertaturik ez dagoen herrietan kokatuta daude. Haurreskolak Partzuergoak, 2003-04 ikasturtean, 476 plaza bakarrik eskaini ditu. Non daude urtero sortuko ziren 1000 plaza horiek? Udal Haur Eskolak 30 herri edota hirietan daude eta beti azaldu da herri eta hiri horietan zegoen plaza falta. Behar hau Eskola Kontzertatuen



bidez bete nahi al da? Zer nahi da, Eskola Publikoa, Eskola Kontzertatua iristen ez den herrietan, hau da, ekonomikoki interesatzen ez zaion herrietan bakarrik sortzea?

**Zein da Hezkuntza Sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Politika?**
Bestalde, aipatu behar da Haurreskola Partzuergoak 0-2 urteko haurrak bakarrik hartzen dituela. Zer gertatzen da 2 urteko haurrekin? Zikloa hautsi egin da. Haurra 2 urte betetzera iristen denean, badirudi haur horren familiak ez duela ordutegi malguaren beharrik. Zertan geratzen da Dekretuan azaltzen den familiei laguntzeko asmoa?

**Diru laguntzekin, zer gertatzen da?**
2003ko uztailaren 30ko aginduak 0-3 zikloa duten Eskola Pribatuei emango zaien diru laguntza arautzen du eta bertan azaltzen da 2003ko ekainaren 13rako izan behar dutela baimena diru laguntzak jasotzeko. Zein ikastetxek jaso duten diru laguntza aztertuz gero, garbi ikusten da data horretan baimenik ez zuten 19 ikastetxek jaso dutela. Hau ez al da legez kontrakoa?

Badakigu 0-3 zikloa mantentzea garestia dela baina eskaintza publikoa ziurtatu, antolatu eta behar den bezala finantziatu baino lehen eskaintza pribatua finantziatzen hasi dira. Eta hau horrela izanik egoera bitxi batekin egiten dugu topo, kasu askotan eskaintza publikoa garestiagoa dela pribatua baino. Egoera hau nola eta noiz konponduko da?

**Zein zerbitzu eta nolakoak ditu?**
Haurreskola batera bere semea edo alaba eramaten duenak besteak beste, haurra ondo heztea eta zaintzea, garbitasuna, bazkaria eta askaria ematea, eta ordutegi eta egutegi malgua eta zabala izatea eskatzen du. Aspalditik 0-3 zikloko umeekin esperientzia duten Udal Haur Eskoletan bazkaria eta askaria Haur Eskolan bertan prestatzen dute. Baina Udal Haur Eskoletan ohikoa den zerbitzu hau Haurreskolak Partzuergoan ez da betetzen eta gurasoek prestatuta eraman behar dute janaria Haurreskolara. Zergatik ez du Hezkuntza Sailak ezinbestekoa den zerbitzu hau betetzen?

Euskal Eskola Publikoaren, gure eskolaren, etorkizuna zalantzan egon daiteke 0-3 zikloaren egoera konpontzen ez bada berehala. Euskal Gizarteak ongi baloratzen du Euskal Eskola Publikoa eta %63k Eskola Publikoa aukeratuko lukeela aipatu zuen Lehendakaritzak 2002ko uztailean argitaratutako ikerketa soziologikoan. Baina gizartearen nahiak eta beharrak uztartzeko beharrezkoa da Haur Eskolen eskaintza Publikoa handitzea, eskaintzen dituen zerbitzuak hobetzen joatea eta gurasoek ordaindu behar dutena familien diru sarrerengandik hurbilago egotea.

Euskal Eskola Publikoa, denon eskola, indartzeko, hobetzeko lan egiten ari garen langileak eta gurasoak gure kezkak eta eskaerak Hezkuntza Sailak eta Eusko Jaurlaritzak ulertu, argitu eta konpontzeko neurriak ipiniko dituen itxaropenarekin.

**IRAKASKUNTZA PUBLKOAREN MAHAIA:**
EHIGE, SORTZEN-IKASBATUAZ,
Haur Eskolen KOORDINADORA,
BIHE, SAREAN, CCOO, ELA, LAB,
STEE-EILAS, UGT.

# A vueltas con el 0-3 años

**En un artículo publicado en el primer número de la revista "Baikara", editado el pasado mes de Diciembre, ya expresábamos nuestra preocupación y disconformidad con la forma en la que el Departamento de Educación estaba planteando la oferta pública en el tramo 0-3. Desde entonces, y transcurridos seis meses, hemos asistido al nacimiento del Consorcio "Haurreskolak" y su implantación en algunos municipios. Por este motivo, nos sentimos capacitados para hacer una primera valoración sobre las características de la oferta pública en este tramo de edad, siendo ésta totalmente negativa, por lo que desde BAIKARA seguimos opinando que si el Departamento de Educación sigue empeñado en realizar la oferta pública únicamente a través del actual modelo del Consorcio "Haurreskolak", vemos bastante oscuro el futuro de la escuela pública. Esta preocupación es compartida por todo el colectivo de agentes que formamos la escuela pública (madres-padres, profesorado, sindicatos…..), por lo que el organismo en el que estamos todos representados, la Mesa del Sector Público, ha querido comunicar a la opinión pública en general, y a las personas que formamos la escuela pública en particular, la preocupación por la forma en que desde el Departamento de Educación se está gestionando el tramo 0-3. Es por todo esto por lo que os queremos hacer llegar el siguiente escrito.**



## Tras seis meses de oferta pública en este tramo la valoración que cabe hacer es totalmente negativa

